2001
2022

KALAPUTXI

Mutrikuko herri-aldizkaria
2022ko azaroa - 232 zkia.

EUSKARALDIA



Javier Urresti Quinteiro

Sokatira taldeari agur

AZARO, AZARO, EREIN ETA ITXARO • OIER ALVAREZ BEITIA HIP-HOP ERRITMOAN PAUSOKA
18. ABENDUROCK, ORAINGOAN BAI! • EUSKARALDIA: HITZEZ EKITEKO GARAIA
BOLATOKIXAK EDONUN (I)

línea VERDE
SMART CITY

MUTRIKU HOBETZEKO APLIKAZIOA

DESKARGATU HEMEN: App Store

DESKARGATU HEMEN: Google Play



Mutrikuko Udala

Telefonoak

Osasuna

COVID-19 KORONABIRUSA
OSASUN AHOLKURAKO TEL. ... 900 20 30 50

Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00
Alzheimer elkartea 943 29 71 18

Botikak

Lasuen-Elezgarai ..... 943 19 50 26 / 626 61 13 92
Lon Apraiz ..... 943 60 32 50 / 630 05 50 97
Amaia Zalduegi 669 26 22 01
Hiart Burgoa 667 33 88 90
Arantzazu Izpizua (Eibar) 943 20 19 12

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa ..... 943 60 70 48 /679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Anai Arte bulegoa 943 60 42 47
Anai Arte taberna 943 60 34 10
Mikel Deuna Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Eguneko Zentroa 943 60 38 71
Turismo Bulegoa 943 60 33 78
Bake epaitegia 943 60 70 49
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua 943 60 41 91
Ur Kontsortzioa 943 00 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Posta zerbitzua 943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola 943 89 91 52
San Miguel Ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko BHI Institutua 943 89 92 24
Kardala Akuakultura Institutua 943 60 71 37
Udal Euskaltegia 943 60 30 94
Udal Musika Eskola 943 60 37 80
Haurreskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia 638 67 23 83
Lurraldebus 943 41 52 08
Pesa Autobusak 900 12 14 00
BizkaiBus 902 22 22 65
EuskoTren 944 333 333
Loiuko Aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia 943 60 39 87

Iritzixa

Malen Aldalur Azpillaga

Azaroa

Aipatu ditugu eraildako emakumeen zifrak, identifikatu indarkeria matxistarik ikusezinenak, landu ditugu autodefentsa mekanismoak, asmatu ditugu ahalduntzeko moduak, egin ditugu izebergak eta termometroak, atera ditugu zapatak kalera, etzan gara lurrean hildako emakumeei aitortza egiteko asmoz, atera dugu zarata garrasi eta batukada feministekin, asmatu ditugu leloak, idatzi ditugu hitz luze luzez betetako manifestuak eta iritzi artikuluak, egin ditugu elkarrizketak, antolatu ditugu hitzaldiak eta mahainguruak, korritu ditugu indarkeria matxistaren aurkako lasterketak, jaio dira abestiak eta entzun ditugu kontzertuak, josi ditugu paparrekoak, kateatu ditugu txapak, erakutsi ditugu titiak, antolatu ditugu brigada morak, protokoloak... Ez da erraza 2022ko azaroaren 25ean ezer berria egitea, eta hala ere, ezin asmatu nola okatu tripetan harrapatuta geratu zaigun amorru guztia. Izan ere, aipatutako ekintza ia guztien atzean dago mugimendu feministaren bat, zeinak ziurrenik guk geuk egin bezala, ikasturtea hasi denetik bertatik kudeatu behar izan dituen dagoeneko eraso bat edo bi baino gehiago.

Baliteke azaroaren 25a nazioarteko gainerako egunekin geratzen den gisara, protokoloarioa bihurtu izana: lazo morea, pankarta eta iluntzeko manifestazioa. Agian indarkeria matxista hainbeste xehetzeak berak bihurtu du abstraktu, eta manifestaziora doanak ez du ezagutzen azken emakume erailaren aurpegia, ezta herriko azken erasoaren berri ere. Baliteke norbaitek esatea orain dena bihurtu dela eraso, eta dena salagarri, eta bitartean gu gertatu diren hainbat eraso larri isilean eraman behar izateagatik eztarrian behera listurik ezin irentsi egotea, edo begiak ezin bildurik. Askotan ez ditugu zifrak, eta zifrak ditugunean izenak falta zaizkigu, eta izenak eta zifrak ditugunean ezin ditugu esan. Agian horrexegatik katramilatzen gara maiz diskurtso estruktural eta hitz cisheteropatriarkalkapitalistakolonial luzeetan, ez hainbeste indarkeria matxistaren sustraiak, egitura eta botere dinamikak azaldu nahi ditugulako (hori ere bai, noski), errealitatearen gordina azaleratzeko hitz arruntak erabiltzea erraza ez delako baizik.

Horregatik, ezinbestekoa izango da zamak elkarbanatzea, ardurak guztiok hartzea eta beste aldera begiratzeari uztea. Ongi dago azaroaren 25ean kaleak hartzea, baina beharrekoagoa zaigu urtean zehar inguruan gertatzen zaizkigun indarkeria matxistak indetifikatzea, konplizitateekin haustea, posizionatzea eta indarkeria matxistarik gabeko espazioak sortzea. Hitzak falta zaizkigunean, ekintzak behar ditugu, eta, horretarako, zu ere behar zaitugu.

Argitaratzailea
Karenka Komunikazio Elkartea
Barrenkale 12, behea
20830 Mutriku
Tel. 635 748 393
e-posta aldizkaria@kalaputxi.eus
Webgunea: www.kalaputxi.eus
Bloga www.kalaputxi.blogspot.com
Laguntzailea Mutrikuko Udala

Kolaboratzaileak
Josu Larrañaga,
Inhar Mutiozabal
Tirada 2.200 ale
Lege Gordailua SS-787/01
ISSN 1579-4792
Inprimategia EUSKALINPRI
Banaketa Kalaputxi

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak Mutrikuko Udalaren dirulaguntza jasotzen du:
Mutrikuko Udala

www.lurraldebus.eus 900 300 340

neguko ordutegia uztailaren 31 arte

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00	
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25	
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30	Debaraino (20:40)
Donostia	*7:55	11:30	14:30	19:30	---	*Unibertsitatetik

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	8:00	11:00	*14:30	18:00	20:30	*Unibertsitatetik
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20	
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

*Ianegun ostiraletan

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	*23:20	*01:10
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:25	23:30	01:20
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:55	01:40
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

*Ianegun ostiraletan

Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	*22:05
Eibar	6:05	7:05	orduro	21:05	22:15
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:30
Mutriku	6:55	7:55	orduro	20:55	22:40

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10	19:10	20:10
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40	19:40	20:40
Deba	9:15	11:15	13:15	16:15	18:15	---	---
Mutriku	9:25	11.25	13:25	16:25	18:25	---	---

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

ig. ig./ jai
lr. lar.

Donostia	10:30	14:30	17:00	ig.20:30	lr.21:00	
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50	
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	lr.7:15	8:15	orduro	20:15	21:25	lr.22:15
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:25
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:30
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---

GAUEAN Mutrikutik: ostiraletan 23:25 eta 1:15; larunbatetan 23:25, 23:55, 1:55, 3:55, 5:55.

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	lr.6:50	7:45	orduro	19:45	lr.20:45	lr.21:45	22:00
Eibar	7:00	8:00	orduro	20:00	21:00	22:00	22:15
Mendaro	7:35	8:35	orduro	20:35	21:35	22:35	22:40
Mutriku	7:55	8:55	orduro	20:55	lr.21:55	lr.22:55	23:00

GAUEAN Mutrikura heldu: ostiraletan 0:25; larunbatetan 1:10, 3:10, 5:10, 6:10. Eibartik -25 min.

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	lr.8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	lr.9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	lr.22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Deba	10:15	12:15	14:15	16:15	18:15	20:15	23:15
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	lr.9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	lr.8:40	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	9:00	11:00	13:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	9:20	11:20	13:20	17:20	19:20	21:20

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Bilbo		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	8:29	22:29
Donostia	7:38	8:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

ordutegi eta geltoki guztiak hemen:
www.kalaputxieus/garraioa

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

1970 URTEAN JAIOTAKOEN BAZKARIA

Aurten ospatuko degu 50 + 2 urte.
Inoiz ez da berandu urteak bete eta ospatzeko, beraz animatu eta etorri elkarrekin egingo dugun bazkarira.

NOIZ: Abenduaren 17an
ORDUA: 13:30ean Goiko Plazan
BAZKARIA: Ametza taberna 15:00etan
IZENA EMATEKO: 646 65 56 50 // 617 44 88 01
Izena emateko azken eguna, abenduaren 4a.

50. URTEKO BAZKARIA... AURTEN BAI!!

ZORIONAK, ENERITZ!

Gauzen balioaz denbora luzea pasatutakoan konturatzen gara sarritan. Egunetik egunerako perspektiban bizi garen garaiotan, herenegun egindakoa azkar ahazten zaigu, eta egunekoari edo hurrengo egunekoari ematen diogu garrantzia. Beharbada, bizi izatea egokitu zaizkigun egoerak gehiago eta hobeto gozatzen asmatu beharko genuke, eta gauzei daukaten benetako tamaina eman.

Horregatik, eguneroko perspektiba frontoian duten pilotari gazteak konturatu daitezela bizi izatea egokitu zaigun egoeraz, eta eman diezaiotela duen tamaina, deborak haundi egingo duelako.

Oso maskulinoa izan den kirol batean, zesta puntan, hamaika izan dira gure herriaren izena munduan zehar zabaldu duten izenak, denok ezagutzen ditugunak, denak gizonezkoak. Kirol horretan emakumeak bidea egiten hasi direnean horien artean mutrikuar bat izatea garrantzitsua da, gure herriaren izena munduratzeaz gain, gure herriko pilotarientzat harrotasunerako arrazoi bat delako.

Eneritz eredu izango da aurrerantzean Miruaitzen zestaren munduan hasita dauden eta hasiko diren gazte guztientzat, baina bereziki neskentzat. Eta etorkizunean beti gogoratuko dute guztiek Mutriku Munduko txapelduna izan dugula, bi aldiz ere bai. Eta nesken zestaren historian lehenengo lerroak berak idatzi zituela.

Zorionak Eneritz, zure lorpenengatik, eta eskerrik asko, Eneritz, gure gazteentzako eredu izateagatik. Zu bezalakoak behar ditugu.

Pilotari gazteen partez

KALAPUTXIK 21 URTE

Azkar esaten da hogeita bat urte, baina luze egiten da hogeita bat urteko ibilaldea. Ibilbideko pozetan eta nekeetan bizi izandakoak bilduta, harro egoteko moduan gaude Kalaputxi osatzen dugun lan-taldea. Askotan bakardadean ibili arren, jendearen harrera ona sentitzeak zentzua eman dio egindako lanari.

Egun hauetan urtero egiten dugun moduan, eskerrak eman behar Kalaputxiren ondoan egon eta aldizkaria etxeetan hilabetero edukitzea posible egiten duzuen guztioi. Denon arteko harreman hori ez balitz, ez litzateke posible izango Kalaputxi, ez Kalaputxi hau behintzat, bere onekin eta bere txarrekin.

Eustatek emandako azken datuak kontuan hartuta, herri euskaldunean bizi gara, baina iturri berak adierazten digu etxeko hizkuntzarenn behaketan euskara tokia galtzen ari dela gazteleraren mesedetan. Kalaputxik, sikiera, etxean dauden irakurgaietan bat euskaraz izatea baldin badakar, ondo.

Gure herrian euskarak bereak izan dituenak ez galtzeko eta espazio berriak, funtzio berriak bete ditzan lanean jarraituko dugu lanean, eta horretan mutrikuarrak ondoan izaten jarraitzea espero dugu.

Kalaputxi



Kalaputxi aldizkariak irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira posta arruntez edo posta elektronikoz aldizkaria@kalaputxi.eus helbidera. Aldizkariak ez du zertan bere egin idatzien edukia.

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA
Hondartza 3-4, behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

Azaro, azaro, erein eta itxaro

Gure arteko tradizioek diote lurrak laster hartuko duela atsedena, berriro makilek kolpatu eta esnatuko dutenera arte Agata deunaren bezperan. San Andres egunaren inguruan ereiten zen oinarritzat zuten garia gure lurretan. Gaur ez dago ogia egin beharrik gure baserrietan, baina San Blas baserrira jo dugu azaroa nola bizi zuten eta bizi duten. Ramon Egia Osak abegikor hartu gaitu, eta etengabeko berriketan galdu gara.

Gogoratzen al dituzu garia ereiten zeneko denbora haiek?

Azaroan izaten zen garia ereiteko ordua, giroa lagun. Lehenengo lurra prestatu behar zen, nahiz eta makila luze eta burdina motzeko laiak ezagutu izan ditudan etxean, besteak, burdina luze eta helduleku motzak zituztenak ere erabiltzen ikusia naiz, baina, nire denboran, behi pareak tiratutako goldea erabiltzen genuen baserrian lurrari bira emateko. Egun batzuk tarteko, animaliek tiratutako aria (arie) erabiliz —egurrezko lera bat, azpira burdinazko orratz lodi eta punta zorrotzak zituena— txikitzen zen lurra. Ez naiz gogoratzen zokor-mazoa erabiltzen ote genuen; bai artoarekin. Erein ordu aurretik garalia sufre-uretan garbitzen genuen, eta, ondoren, aleak eskuz jaurtitzen ziren ildoetan. Aita aurretik joaten zen lan horretan, eta, ni, mutikoa, xuna deitzen genion leizar hostoak jaurtitzen nituen, marka bezala, non ereinda zegoen jakiteko. Berriro pasatzean, aria ildoak estaliz; atzetik, alper-harria edo zokor-harria pasatu eta erein lana bukatutzat ematen zen.

Udaberri aldean, garia oraindik berde zegoela, gari-bedeinkatzea zen ohitura, eta apaizak euren sari edo estipendioa eskatzen zuten horregatik: borondatea batzuek, eta Don Rafaelek 10 duro (50 pezeta) edo pare bat oilasko. Pentsa, orduan, etxean ere ez genuela oilaskorik jaten. Makina bat istorio kontatu izan dira, txiste bezala, apaizen lan honetaz, baina, tartean, badira egiazkoak ere.

Nolakoa zen uztaren bilketa?

Galburua heldua zenean eta alea galtzen hasi baino lehenago moztu behar zen garia. Normalean ekain bukaeran edo, izenak adierazten duen bezala, uztailean egiten zen. Jakitun naiz, nire aurretik, igitaia erabiliz egiten zirela lanak, baina, nire denboran, jada, behiak tiratutako xafla metalikoak zituen makina genuen lastoak ebakitzeko, hark kanporatzen zituen besaiak, eta guk, zotz bat erabiliz lotuz egiten genituen azaoak; hauetako kopuru batekin mutturrak, eta hauek bilduta metak eraikitzen ziren. Hamabost bat egun irauten zuten meta haiek, giroaren arabera, eta jotzeko txanda izaten genuenera arte.

Ebakitze eta metak egiterainoko lana, baserri bakoitzak egiten zuen berea. Baina gari-jotzerako bailarako baserriak elkartzen ginen auzolanean, baserri bakoitzeko larrainean, bertako garia jotzeko. Baserria arduratuko zen janari eta edari kontuekin eta afariarekin, beharrezko zurrutarekin, kontu kontari jarduteko.

Aurrez, ume nintzela, txanketian gari-jotzen ibili izan naiz. Harlauzak jartzen ziren bertikalean, eta haien kontra astintzen genituen azaoak. Aleak lurrera erortzen ziren, eta lastoa beste aldera pilatzen genuen metak egiteko. Lastazaoak ere egiten ziren, lastargiak behar zirenerako. Sua eman, eta haiek erabiltzen genituen kalera edo beste baserri batera gauez ibiltzeko.

Baina, esan bezala, beranduago Ibiri baserrian zuten makina erabiltzen genuen bailarako baserriok: Eizagirre, Okelar, Mote, Bidekua, Zabale, Ibiri, Ibiritxo, Euzkitza, Mendibeltzu biak eta gurea, San Blas. Hamabost bat gizonezko aritzen ginen lanean, etxetik paineluan batutako fardela eramanda, lan ondoren goiko arropak aldatzeko. Makina egurrezko tramankulu bat zen, danbor metaliko bat zuena, matxakia ere deitzen geniona. Alde batera ateratzen zen lastoa eta beste batera gari aleak. Batzuek makina elikatzen jarduten genuen, besteak lastazaoak egiten, batek eskuarea pasatuz lekuz kanpo erortzen ziren lastoak batzeko, metak eraikitzen hurrenak, eta, azkenak, gari-alea garbitzeko eskuz mugitzen zen makinan, zeinak arotza (zahia) eta alea banatzen zituen. Gure baserrian jasotzen genuen garia kutxa baten gordetzen genuen, eta kopurua jakiteko imilauna zen ibiltzen genuen neurria.

Lanean ginen bitartean eskura izaten genituen mokadu bat edo beste, eta edari franko: ura, ardoa zahatoan, eta pontxea. Lan guztiak bukatzean elkarri bizkarrak garbitu, eta prest ginen afaritarako: oilo zaharraren salda, bakailaoa tomatearekin, eta oilo zaharra bera saltsan izaten zen ohikoa. Kafea eta koinakarekin ondo hornituta jarraitzen zuen afalosteak.

Ogirik egiten al zenuten?

Jakina. Horretarako geneukan garia baserrian. Errota Berri baserrian ehotzen zizkiguten aleak eta handik irina etxeratzen genuen. Baserrian bagenuen labea, eta amak hartzen zuen ogia egiteko ardura.

Gaurkora etorriz, aurten ere egin duzue sagardoa, ezta?

Bai. Ohikoa dugu. Etxerako eta oparitzeko haina egiten dugu —pare bat mila litro inguru—. Bi sagasti ditugu bereiztuta, eta urtero sagar kopuru antzekoa izaten dugu. Honako sagar motak erabiltzen ditugu sagardoa egiteko: urdin-sagarra, txori-sagarra, geza-gorria, geza-zuria, errege-sagarra, txurruka-sagarra, boskantoia, eta urtebixa, nahiz eta sagarrondo mota batzuetatik arbola gutxi izan.

Sagarrak zakuetan biltzen ditugu, eta tobera batetik matxakara bota, txikitutakoa zuzenean dolarera zuzenduta. Gainean habeak jarri, eta, zutiko ardatzeko tramankulua eskuz biratuz zapaltzen dugu sagarra, muztioa lortuz. Lehen egurrezko barriketan edukitzen genuen irakitzen, baina, orain, altzairu herdoilgaitzezko depositu txikiak ditugu. Hiruzpalau hilabete bertan egin ondoren botiletan gordetzen dugu.

Perretxiko sasoian gaude. Ibiltzen al zara hauen bila? Ezagutzen al dituzu?

Ezagutu, ezagutzen ditut batzuk: gibelurdina, urritza, onddo zuria eta onddo beltza, esne-gorri edo errobelloia, kuleto edo gorringoa, ziza-horia eta udaberriko ziza-zuria. Baina ez naiz perretxiko biltzaile amorratuetako bat. Etxe inguruan ditugu, eta soroa garbi edukitzen ahalegintzen garenez, ez zaigu asko kostatzen biltzea.


Ziza-horia, hementxe, etxe atarian ateratzen zen, baina galdu da lekua. Egia esan, gure etxera baino gehiago iristen ziren Don Inazio medikuaren mahaira: udaberriko zizen amorratua zen hura, eta medikuarekin, jakina, ondo egon behar.

Zer beste lan egiten duzue garai honetan?

Garoa biltzen ibili naiz gaur. Irailean, Kalbario buelta horretan ebakita utzi genuen, eta lehenago bilduta eduki behar genuen, baina egin dituen haizeteekin atzeratu egin zaigu lana. Behiei azpikoak egiteko erabiltzen dugu, baina ez dugu gehiegi behar, eta pare bat meta eraikiko ditugu. Behi batzuk ditugu esnetarako baino bazterrak garbitzeko, eta lan asko kentzen digu zelaiak mantentzeko orduan. Azpiak garbitzean ongarritarako erabiltzen dugu jasotakoa, baratzean zein zelaietan zabalduz. Lehen karea ere erabiltzen genuen lurrari emateko, baina, gaur, non aurkitu? Ezagutu izan ditut karobiak martxan hementxe inguruan, baina... joan da ofizio hori ere!

Ez al zara zerura begira ibiltzen? Aurtengo hego haizeaz gustura egongo dira ehiztariak, ez?

Hemen goitik begiratuta, bertan daukagu zerua, eta, konfesatu behar uso-paseari ere begiratzen diogula, baita tiro batzuk baino gehiago jaurti ere bai. Baina usotan ibiltzea baino askoz gehiago gustatzen zait oilagorretan jardutea txakurrarekin. Erakutsi eta prestatu egin behar duzu txakurra, eta, gero, mendian, sastraka artean nola mugitzen den ikustea bera da espektakulua; zer esanik ez, ehizaren aurrean gelditzen denean.









GOIENETXEKO GAZTA GERNIKAN NAGUSI


Pandemiaren ostean, bi urte eta gero, berriz ere jendez gainezka egon da Gernika urriko azken asteleheneko azokaren inguruan. Azokako sariketetan entzutetsuenetakoa gaztarena izaten da, eta horretan Mutrikuk izan du ordezkaritza. Izan ere, hantxe izan ziren Goienetxe baserriko Joxe eta Beñat aita-semeak. Baita irabazle gertatu ere! Bi bigarren postu eta hirugarren postu baten ostean, lortu dute gaztagile mutrikuarrek Gernikan ere lehenengo postua lortzea. Bejondeiela!

Josek adierazi duenez, sari-banaketaren ondorengo enkantean 6.100 euro ordaindu zen gazta maiatzean egindakoa da, eta maiatzean larreak ba omen du berea. Gazta guztiak modu berean egiten dituztela dio, baina maiatzeko esneak zerbait gehiago ematen dio azken produktuari.

Han hemenka hainbat eta hainbat azokatan ibilita, dagoeneko hainbat sari ere jaso dituzte, eta sariak poztasuna ematen die eta lanean jarraitzeko gogoa berritu. Goienetxe baserriaren izena eta Mutriku izena euskal plazazetan entzutea ere bada zerbait.

Joseren esanetan, nahikoa triste dago gaztandegien egoera; orain, gainera, dena garestitu da, eta gaztaren prezioa ezin da asko igo. Nahikoa estu dabiltza, baina eutsi egin behar, gazta ondo saltzen delako. Eta horretan, sariak irabazteak ere lagundu egiten du.

A ze zortea mutrikuarrona punta-puntako gazta bertatik bertara edukita!



MINBIZIAREN AURKAKO TALDEAK ESKERRAK

Mutrikuko minbiziaren aurkako taldeak urriaren 19an ospatu zen bularreko minbiziaren eguna dela-eta eskerrak eman nahi dizkie herritarrei. Lehendabizi, Mutrikuko BHI institutoari, bertan egin ziren hitzaldien bitartez gazteengana hurbiltzeko aukera eman baizitzaien. Bestalde, udalari, emandako babesagatik. Baita dendariei ere, erakuslehioak apainduta kaleak arrosa kolorez dotore janztearren.

Bestalde, aipatu nahi dute Gipuzkoako minbiziaren aurkako bulegoa Eibarren kokatzen dela, hain zuzen ere Ardantza kaleko 11 zenbakian. Egunero-egunero 09:30etatik 13:30etara arreta psikologikoa eta arreta soziala eskaintzen da bertan horren beharra duten herritar guztientzat.







EÑAUTEN ZAZPIGARREN KOLEKZIOA

Urriaren 26an, Sant Pau esparru modernistan *080 Barcelona Fashion*-eko 30. edizioan Eñaut Barruetabeña Anparan mutrikuarrak zazpigarren aldiz erakutsi zituen bere diseinuak, oraingoan "Under" izena emandako kolekzioan.

Diseiatzaileak 28 look azaldu zituen desfilean osagai hauez lagunduta: poltsak eta eguzkitako betaurrekoak *Nonnai Studio* Miren Villacortak mutrikuarrak diseinatuak; bitxiak *Tó Garal*; buztinazko piezak *Clay de Catalina*; oinetakoak *Adidas*, eta *Les Coins* crypto jantziak. Marc Tejedorren gitarra eta Oi Gui musika originalarekin unea girotzeko.

"Under"aurkezpen honekin Eñautek garrantzia eman nahi izan dio koralek ingurugiroan duten eraginari, batik bat, airearen garbitasunean.









GALDEKETA

Portuko babes-dikea amaitzeko obrak hasi diren honetan, dikea luzatzearen aldeko eta aurkako posizioak azalarazi dira berriz. Udan *Danborzaleak* herri-ekimenak egindako bilketa prozesuan 719 mutrikuarren sinadurak bildu eta Udalari erreferenduma egiteko eskatu ondoren udalak halako galdeketarik legez egin ezina agertuta, herri-ekimeneko galdeketa egitea erabaki zuten. Galdeketa abenduaren 16an, ostirala, eta 18an, igandea, burutuko da. Galdera: Dikea luzatzearen alde al zaude? Bai ala ez.



Uzuri
RPS 183/12
ELGOIBAR - DEBA
optika audio
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

ENERITZ, MUNDUKO TXAPELDUN

Eneritz Lizardi Azpiazu, *Kanuto*, *Txotis*, Miarritzen jokatutako munduko txapelketan Munduko txapeldun berri izendatu da, Maite Ortiz bikotekidearekin. Pilotari mutrikuarrak bigarrenez lortu du munduko txapeldun izatea, iaz Valladolideko Iscar herrian 23 urte azpikoen munduko Txapelketa irabazi ostean. Umetatik Miruaitz pilotalekuan Jon Mendizabal *Goixerri*ren esanetara hasi eta hazitako pilotaria bi aldiz munduko onena izatera helduta, hirugarren txapelketaren bila joango da Argentinara 2026 urtean. Bitartean, Mutrikuko, Gipuzkoako eta Euskal Herriko frotoietan bere jokoaz gozatzeko aukera izaten jarraituko dugu, eta etxera txapelak ekartzen jarraituko du.

Zorionak, Eneritz!



OROIMEN ASTEA

Jendearen harrera beroak eman die hasiera *Saturraran Elkartea*k udalarekin batera antolatutako ekintzei. 36ko gerra erdigunean hartuz egitarau dotorea osatu dute. Aipatu bezala, *Gerraren markak* izeneko ibilaldiak hasiera arrakastatsua eman dio oroimen asteari. Goiko plazan elkartu ondoren, eskuetan ibilaldiaren azalpenak zituztela herriko hainbat puntu bisitatu dituzte bertaratutako herritarrek eta bisitariek. Egun krudel haietan herritarrek jasandakoa azaltzea izan da helburua. Urte hartako uztailean kokatu dira horretarako, eta herrian momentuan zeuden zentroen kokalekuak erakutsi dituzte: karlistena, abertzaleena, errepublikarrena eta emakume abertzaleena. Horrez gain, soldadu italiarrak non bizi ziren eta instrukzioak nola egiten zituzten ere azaldu dute. Baita bonbardaketa egunetan herritarrak non babesten ziren ere. Aipamen guztiak elkarrizketatuen ahotsak lagunduak izan dira; ibilbidearen esku-orrietan kokaleku bakoitzari zegokion QRLa baitzuten. Horrela, herritarren testigantzak zuzen-zuzenean entzuteko aukera izan dute. Bestalde, astean zehar Zabiel kultur etxean erakusketa jarri dute martxan. Saturrarango emakumeen kartzelan egon ziren emakumeak eta haurrak jarri dituzte erdigunean, azalpenak panelen bitartez eskainita eta ikusentzunekoak baliatuz. *Gurs* herriko kontzentrazio esparruko testigantzak ere jaso dituzte. Eta, *Euzkadiko Itxas Armada*n parte hartu zuten mutrikuarrek ere beraien lekua izan dute. Asteari bukaera emateko Saturraranen egin dute hitzordua, jarri berri duten monolitoaren aurrean txistularien eta dantzarien laguntzaz kartzelako emakumeak eta haurrak oroituz.

Iraganean izandakoak gogoan hartuta etorkizunera begira eraikitzeko esperientzia ederra asteotan eskainitakoa.





APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es

Oier Alvarez Beitia

HIP HOP ERRITMOAN PAUSOKA

Gaztea, mutrikuarra eta rap kantaria, horixe da Oier Alvarez Beitia (2004-02-05). "*Rapa da nire gustukoa*" dio ozen. "*Rapak ematen dit nire sentimenduak aske oihukatzeko aukera*".

Hip Hopa edo Rap musika Hip Hop kulturaren barne zurrunbiloan garatu zen musika-genero bat dela esan genezake. Mugimendu artistiko hori, hain zuzen ere, Estatu Batuetan sortu zen 1960aren amaieran, New Yorkeko auzo ezagunetan: Bronxen, Queensen eta Brooklynen. Rap hitza Hip Hop hitzaren sinonimo gisa erabiltzen da, eta graffitiekin, breakdancearekin eta bizi-filosofia zehatz batekin lotzen dugu.

Esan daiteke mutrikuar rap-kantariaren aurkezpenik onena "Siempre salgo perdiendo" bere lehen diskako kantua izan daitekeela, Axular Arizmendiren laguntzarekin AME estudioan grabatutako lehen kantua. Iritzi bat baino ez da, kantuaren mezuan eta hitzetan erreparatu beharko genuke. Berak dioen bezala "*kantuen hitzetan jartzen dut arreta eta ez doinuan*". Baina, nor da Oier? Benetan ezagutzeko rapeatzen ikustea izan beharko litzateke lehen pausoa. Mutrikuko gaztetxean izan genuen aukera joan den urriaren 22an. Behin hori eginda, abiatu gaitezen Oier beraren hitzetan nor den ezagutzera, bere kantuekin munduari zer esan nahi dion jakitera.

Aipatu da gaur zertan aritzen den, baina, urte batzuk pasa ditu bere etxean musika entzun eta kantuak sortzen. Berak gogoan du, hamairu bat urte zituela, lehen aldiz rap kantu bat entzun zuenekoa. Gogoan du baita orduan gehiengoarentzat ezezaguna zen taldearen izena, hain zuzen ere bi mutilek abesten zuten: "Ayax y prok". Momentu hartan argi izan zuen hori egin nahi zuela. Hortik aurrera mundu horretan murgiltzen hasi zen, eta kantuak sortzeari ekin zion.



Bost kantu lehen diska honetan. Horiek Axularren estudioan lantzen dihardu "*poliki poliki grabatuko ditugu kantuak banan banan landuz*". Lehen pausoa mutrikuarrarentzat hitzekin jokatuz esaldiak osatu eta kantua sortzea da, ordea, hori ez da bapatekoa. Sentimenduen zurrunbilo baten ondorena izaten da lehen hitzen hasiera. Momentu bereziak dira. Baina orain kantu horien hitzak orraztea tokatzen zaio "*diska honetarako aurretik sortuak nituen kantuak orraztea egokitu zait; berriro irakurri eta gustoko ez nituenak aldatu ditut*". Esan bezala, bost kantu lantzen ari da mutrikuarra, gazteleraz eta euskaraz kaleratu nahi ditu eta horretan dabil buru-belarri. Gainera, baditu kantu gehiago, eta aurrerantzean bigarren diska bat grabatzeko ametsa ere badauka. Mutrikuarrak indarrez ekin diola esan behar da.

"Nire sentimenduak adierazi"

Bizipenetatik abiatzen den kantu sortzailea da Oier "*nire sentimenduekin bat datoz nire kantuetako hitzak. Hip Hopak edo Rapak barneko askatasuna eta lasaitasuna eskaintzen dit. Etsita esnatzen naizen egunetan musika jarri eta aktibatu egiten nau*". Etxean sortu izan ditu bere kantuak. Buruan doinu jakin bat duela bere hitzak grabatzen ditu. Yootubetik atera izan ditu "base" edo oinarriak eta horiek erabiliz kantuak sortzen trebatu da. Berak dioen bezala "*maila xume batean*". Era berean, hurrengo pausoa ematera ere ausartu zaigu eta Axularren laguntzarekin ibilbide berriari ekin dio kalitatea zainduz.

Hip Hopaz hitz egitean, galdetu diogu nolako taldeak dituen eredu edota gustuko. Azaltzen digunez, "*hauek dira momentuan bururа etortzen zaizkidan batzuk: Hard GZ, Arce, Toteking eta Nach. Haatik, esan beharra daukat ez ditudala horiek bakarrik entzuten; estilo ezberdinak ditut gustuko, hau da, denetarik entzuten dut*". Halare, bere sentimenduak adierazteko eta aldarrikapenak esateko musika estilo egokiena aukeratu duelako ziurtasuna dauka Oierrek.

Behin disko berriaren grabaketa aipatuta, zuzenekoak egitea ere egokituko zaio gazteari. Eta aurrerantzean bere diska entzuteko parada izango dugu. Argi du orain dela momentua eta gogoz heldu dio ibilbide berriari. Grabaketa egin ahal izateko Crowfunding plataformaren bitartez(https://sites.google.com/view/msfk-music/inicio) entzuleen laguntza eskatu du Oierrek, bere ametsa egia bihurtzeko bidean baita.

Bejondeizula Oier!





Jabier Urreisti Quinteiro

Sokatira taldeari agur

Hogeita hamaika urte eskaini dizkio Javier Urresti Quinteirok (1967) sokatira talderi: "uste dut heldu zaidala hau dena usteko eguna". Etapa berriari hasiera emango dio albo batera utzi zituen afizioei berriro helduz.

Bukaera eman diozu ibilbide honi; nolatan?

Badira hamar bat urte lagatzekotan ibili nintzela, ordea, batzar batean taldekideek jarraitzeko eskatu zidaten eta hala egin nuen, egoera ere jarraitzeko modukoa baitzen. Hala ere, pare bat urtean, pandemia tarteko, taldea lagatzeko pentsamenduarekin nenbilen. Iazko urtea beltza izan zen; bai familiko egoeragatik eta baita taldean izan genituen heriotzengatik. Urteak ere aurrera, nahiz eta fisikoki oso ondo sentitzen naizen. Egia esan, kirol honek sakrifizio handia eskatzen du: ordu asko sartu behar dira, eta lanketa handia egin behar da. Gainera, atzetik dagoen lan guztiak ere nekatzen du: prestaketa eta antolaketa lanak. Bestalde, sokatira egin ahal izateko gauza asko utzi ditut albo batera, eta orain sokatira utziko dut utzi nituen horiek egin ahal izateko; bakarren batzuk egiten baditut pozik. Halare, pena handiz utziko dut sokatira.

Taldean jarraituko duen norbait ere utzi duzu, baina: Ane Urreisti, alaba.

Bai, eman diot bultzada alabari, baina ez dakit zer egingo duen. Gustukoa duen arren, lehen baino zailagoa egingo zaiola iruditzen zait. Neska bakarra da taldean, agian berarentzat ez da muga bat izango, baina baldintzatzen duela esango nuke. Orain arte elkarrekin etortzen ginen entrenamenduetara bata-bestearen sostengu. Eta gainera, Donostian burutzen ditu ikasketak eta horrek ere ez dio erreztuko; denbora tarte urria izango baitu. Hala eta guztiz, beti lagunduko diot hartzen dituen erabakiak aurrera eramaten. Iaz eta aurten talde mistoa ateratzen ahalegindu naiz berak tiratzeko aukera izan zezan. Horretarako gainontzeko taldeei tiratzaileak eskatu dizkiegu. Bereziki urte politak izan dira; herri kiroletan ere elkarrekin jardun dugu; esaterako txinga eramaten inolako presiorik gabe, afizioz, disfrutatu egin dugu.

Zure azken denboraldia, aurtegoa, nola joan da?

Beti dago hobetzeko aukera. Emaitza onak ikusteko, jarritako entrenemendu guztiak burutu behar dira eta, sokaz gain, beste arloak ere jorratu behar dira. Txapelketara joan eta aurrean ibili nahi izatea normala da, aldiz, horretarako gogor entrenatu behar da. Jakina denez, mundu mailako txapelketarekin eman diogu bukaera aurtengo denboraldiari, eta dotore jardun dugu. Uztaileko torneo internazionaletara ere aurkezteko aukera izan dugu, baina ez dugu parte hartzeko pausua eman. Hala ere, esan bezala bukaera polita eman diogu aurtengoari munduko txapelketarekin; maila polita erakutsi dugu.

Zer, nola eta noiz hasi ziren herri kirol munduan? Nolakoak izan ziren hasiera haiek?

Sokatiran 1990ean hasi nintzen, hogeitahiru urterekin. Baina, giro honetan nire ibilbidearen hasiera aitak lagunduta hemezortzi urterekin eman nion, txinga-eramaten. Lehen plaza 1986an egin nuen Berritxuko Madalena auzoan; mutil ederra nintzen eta urte haietan ez nuen entrenatzen. Herriz herri eta auzoz auzo ibiltzen nintzen. Nire saritxoak lortzen nituen itsulapikoa betetzeko, eta pozik jarduten nuen. Eta, 1990an, Jon Sakoneta probalariak animatuta, Markinako taldean parte hartu nuen. Lau entrenamendu besterik ez genituen egin, sokari tira eta elkar hartu, besterik ez. Hortik abiatu eta, 1991ko ekaina bukaera aldera, Jose Mari Egañak hala eskatuta, Mutrikuko taldera etorri nintzen; ni neure pisu ederrarekin lokalean aurkeztu nintzen.

Mutrikuko Sokatiraren bilakaera zernola ikusi duzu?

Berritxuko taldekide asko zeuden hasi nintzenean. Zera, sekula ahaztuko ez dudan pasartea aipatu nahiko nuke: garai haietan, hondartzan egiten zen korrika beroketa gisa. Nire lehen eguna burutu eta handik hamabost bat egunetara, taldekidea nuen Urkixa zaharrak hoakoa esan zidan "*Urresti, zure oin-markak oraindik hondartzan daude*". Badakizu zer dela eta, ezta? Orduan mutil ederra nintzen, pisu handikoa, 120 kilo nituen-eta.

Ordutik, taldekide edota kirolari asko ezagutu ditut. Besteak beste, entrenemenduak ere asko aldatu dira. Ni neu ere gauzak aldatzen ahalegindu naiz, eta egin diren aldaketa eta progresio guzti horien emaitzarik ez dut ikusi. Agian, urtero-urtero jende berriarekin aritu garelako, horren ondorio bat ere izan daiteke, ez dakit. Nik behintzat zera ikusi dut gurean, eta, beste taldeetan ere esango nuke baietz: lau bat urtetan taldekideak mantentzen direnean, orduan ikusten dira emaitzak. Hau da, taldekideak beraien artean ezagutu eta bakoitzaren postura egokitzen direnean ikusten ditu talde horrek emaitzak; lau bat urte behar dira. Guk geuk ere izan genituen horrelako momentuak. Aurreneko postuetan ibili ginen indartsu. Baina, aipatu dudan bezala, talde beteranoa izan behar da. Entrenamenduetan ere nabaritzen da, eta ondorioz errendimendua handiagoa da. Hasi berriei beti esaten diet lehen urtean ez direla ikusten emaitzak, lasai hartzeko, ez desanimatzeko eta jarraitzeko. Lehenik, emaitzak norberaren eboluzioan

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

ERAIKUNTZAK
OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. 943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)


Taldearen aingura


Estatu Batuetako ibilaldian

ikusten dira, norberaren hobekuntzan. Haatik, ez dakit hori guztia ondo transmititu dudan edota jakin dudan transmititzen: ahaleginak egin ditut behintzat.

Bereziki gogoan duzun txapelketa bat...

Bai, urte hauetan guztietan izan genuen tiraldirik luzeena daukat gogoan; Hondarrabian izan zen, oker ez banabil 1998an, eta hogeita zazpi minutu egon ginen tiratzen. Areso taldearen aurka izan zen. Lehen tiraldian, esan bezala hegeita zazpi minutu, bigarrenean, berriz, hamar minututik gora. Gaur egun oso zaila da horrelako tiraldiak ikustea, ezinezkoa, zazpi minutura baitago denbora muga jarrita eta epaileak ere arigano moztu dezake tiraldia.

Euskal Selekzioko partaide ere izan zara...

Asko aldatu da egoera. Lehen Espainiako selkezioaren izenean joaten ginen. Aldiz, 2014an Euskal Herriko selekzioko partaide hasi ginen tiratzen, eta taldekideek hor parte hartzea oso handia izan da. Niri neuri ilusio handia egin zidan, eta ziur nago besteei ere baietz. Hasierako urte haietan gure arteko txapelketan txapeldun ateratzen zuen taldeak ordezkatzen zuen gure selekzioa. Nuarbe, Goierri edota Gaztedi taldeak ziren beti ere tiratzera joaten zirenak 560, 600, 640 kilotan, eta gu nola talde pisutsua ginen, ba kanpo gelditzen ginen. Emaitzak ez ziren heltzen, baina beno, pozgarria zen. Orain asko aldatu da, gaur egun aukera anitz ditugu eta 23 urte azpiko tiralarien parte hartzea posible izatea izugarria da. Aurten, hain zuzen ere gure taldeko bi gaztek parte hartu dute. Eta, aurten hasi berri den Urdax mutrikuar gazteak hemezortzi urterekin selekzioan tiratzeko aukera izan du: hori itzela da!

Zeintzuk modalitate praktikatu dituzu? Zein gustukoena?

Herri kirolen aitzakian leku askotan izan gara: Galizian, Katalunian, Iparraldean, Frantzian... Modalitate askotan hartu dugu parte: txinga-eramaten, gurdian, trontzan,...baina txapelari begira gurdiarekin ibili naiz serio edota gehien saiatu naizen modalitatea hori da. Hain zuzen ere, 2001ean Donostin Zazpi Herrialdeetako txapelketan atera nuen txapela. Ondorengo urteetan Gipuzkoako txapelduna ia urtero izan naiz, eta 2009an urte oparoa izan zen Hiru txapelak irabazi bainituen (Gipuzkoakoako; Euskal Herriko; eta Zazpi Herrialdeen arteko txapelketa).

Zer eman dizu kirol honek?

Lehenik, sokatira mundua ezagutzeko aukera ederra eman dit. Herrialde asko bisitatu ditut; oporretarako egoera normal batean aukeratuko ez nituen herrialdeak. Horien artean Sudafrika edota Estatu Batuak. Azken hortan familikoak ezagutzeko aukera izan nuen; nire lehengusu txikiak. Eta, adiskidetasun estua lortu genuen. Guzti hori eskaini dit sokatirak. Gainera, kirol honen bitartez nire elikadura aldatzera eta nire gorputza zaintzera eraman nau. Egia da beti izan naizela nire buruarekin exigentea eta baita konstantea ere. Bai eskolan, bai etxean edota baita lanean ere horrelakoa naiz. Horrez gain, aldaketak eta gauza berriak sartzea gustoko dut. Hori dela eta, entrenamenduetan ere gauza berriak sartzen ahalegindu naiz. Norbaitek aholkuren bat emanez gero, hori aurrera eramaten eta praktikatzen ahalegintzen naiz. Ondoren esango dut gaizki edo ondo dagoen, baina, aurrez behintzat ahalegindu egingo naiz. Pisua galtzearena ere nire buru gogortasuna izan zen. Dietista baten laguntzaz aukera izan nuen hortan abiatzeko. Laurogeita bost kilotatik ezin jeitsita nenbilen eta hirurogeita hemazortzi kilotara jeistea lortu nuen.

Bukatzeko zerbait aipatu nahiko zenuke?

Ondarrun, herri kirol erakustaldia egin genuenean agurtu nintzen bertan zeuden ikusle, taldekide eta herriarekin. Eta, mutrikuarrei ere gauza bera esango nieke: eskerrak eman denei, bai laguntzen ibili diren guztiei, baita oztopoak ere jarri dituztenei, hortik asko ikasten baita nahiz eta gustukoa ez izan momentuan, bai udalari urtero-urtero Madalenetan herriko plazara gonbidatu eta gurekin izan duten pazientzia guztiagatik eta ikusleei guri txaloak eskaintzearren. Bestalde, gaizki esandakoengatik eta inori min eman badiot barkamena eskatzen dut. Bai, oraingoan talde hau uzten dut baina, hau ere aipatu nahiko nuke, nire nahi nagusia eta garrantzitsu bat bete gabe noa. Nire nahia beste lokal bat edukitzea izan da, daukagunaz gain beste bat. Taldekideak biltzeko erabiliko genuke eta era berean museo edota erakustoki, non sakabanatuta dabiltzan trofeo, oroigarri eta abar bilduko liratekeen. Baina, konfidantza daukat nire ondoren datozenek lortuko dutela.

Eskerrik asko, Jabilo, sokatirari eman diozun guztiagatik!

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

ospakizunak, bazkariak, bataioak, eguneko menua...
SAN JUAN JATETXEA
Mutriku-Deba errepidea, Laranga auzoa
Tel.: 943603167 (jatetxekoa)

BOLATOKIXAK, EDONUN (I)

Urriko Kalaputxin "Hiru txirlo bola-jokoa" artikulu interesgarrixa irakurri gendun. Hille hontan eta hurrenguan ere bola kontuak ekarriko ditxugu hona: batetik, paper zaharretan agertzen zakuzen bolatokixen berri emango degu, eta, bestetik, sasoi baten boletan ibilli ziran mutrikuarrei entzundako pasadizuak jasoko ditxugu.

Gaur egungo mutrikuarrentzat futbola eta txirrindularitza dira erreferentziazko kirolak, pelotia ere bai akaso. Horregaitxik baten bat erdi galduta dauanian "jokoz kanpo dauala" esaten degu, eta denboraz estu gabiltzenian "erloju kontrakua" edo "erlojupekua" bezelako esaerak aitxatzen ditxugu. Oraintsura arte bola-jokua oso ezaguna izan da gure herrixan; eta, jakiña, erreferente kulturala izan da. Bi adibide labur: a) trumoia zanian, errez entzun zeiken Mutrikun: "*han San Pedro boletan!*"; b) esaeria zan "*Mizkiamenditxik Mendibeltzura boletan ibiltzen zirala jentillak*". Mendibeltzun dauan harri haundi bat, horren lekuko.

Hamaika bolatoki

Zenbat bolatoki egon dira Mutrikun? Euskaldunok "asko" edo "aukeran" esateko hamaika numerua erabiltzen degu, baiña Mutrikuran kasuan hala da izan; hamaika bolatoki behintzat egon dira. Batzuk udal lurretan egon ziranez udal agirixetan agertzen zakuz; beste batzuk, berriz, partikularren sailletan egon dira, edo bazterreko kontutzat hartu diranez, ez dakigu noiz egin zitxuen. Lehelengo, desagertu ziranak aitxatuko ditxugu, eta martxan daguan bakarra azkenerako lagako degu, Galbaixokua.

Samikollako bolatokixa

Hau da agiri zaharretan topatu deten lehelengo bolatokixa. 1763. urtian Juan de Elorzak baimena eskatu zion Udalari Samikolla ermitxa ondoko bolatokixaren aldamenian aterpe bat egitxeko: "*para hacer a su costa en el Prado de Sn Nicolas, junto al Juego de volos, un cubertizo o casilla, con su puerta, para guardar los bolos, y poderse guarecer la gente en qualquier ocasion de aguacero*". Udalak baimena eman zion, "*por el bien que de ello resulta al comun, y ningun perjuicio a la hermita*".

Horrek irakurritxa garbi dago Samikollako bolatokixa lehenagokua dala; noizkua? Eta, noiz arte egon zan martxan bolatoki haura? Hori ere, oraingoz, ez degu izan argitzerik.

Sa Migeleko bolatokixa


Handik bi urtera, 1765ian, agertu zaku San Migeleko bolatokixaren lehelengo aitxamena. San Migel ermitxaren aldameneko zelaixan (*prado de San Miguel*) egon zan. Urte hartan Udalak bi langilleri 4 errial eman zixuezen bolatoki haura konpontziarren: "*4 rs a dos peones que por una tarde se ocuparon en componer el Juego de Bolos de Sn Migl*". 1777. urtian San Lazaro ospitxaleko maiordomuak 60 errial ordaindu zitxuan, "*por tres maderos que dio para el Juego de Volos de Sn Miguel*".

Bolatoki haura Udalarena zanez lantzian behin konponketa--lanak egitxen zitxuan. 1786. urtian, esaterako, 12 errial pagatu zixuezen lau langilleri: "*12 rs dados a un peon, y quatro mugeres que se emplearon en traer tierra y componer el Juego de bolos para la diversion de la jubentud*". Gaur egun askok bola-jokua adin batetik goragokuen afiziotzat dakae, baiña argi dago sasoi baten gaztien denbora-pasia zala.

Udalak, urtero, errentan ematen zoan bolatokixa, "*en publica almoneda el arriendo del juego de bolos del prado de San Miguel*". Horren adibide 1817ko San Juan egunian siñatu zan errenta--kontratua. Egun hartan bi alderdixak batu ziran udaletxian, eskribaua aurrian zala: batetik, Udaleko agintarixak (alkatia, sindikuak, erregidoriak eta diputatuak), eta, bestetik, Jose de Lerchundi eta Francisco Javier de Echea. Lehelenguak errentan hartu zoan bolatokixa; bigarrena, berriz, bere fidatzaillia zan. Ohitxura zan bezela urtebeterako eman zixuen errentan. Guztira 180 errial ordaindu biharko zitxuan, bi zatitxan, erdixa Gabon egunian eta beste erdixa errenta-aldixa amaitxutakuan. Baldintza honek jaso zitxuan dokumentuak: 1.-Bolatokiko arduradunak mugatuta eukiko zoan jokaldi bakoitzeko irabazixa, "*no llevar mas derecho o varato, que el que se ha acostumbrado hasta aqui asi jugando partido, como a la tirada*". Horrez gaiñera preferentziazko joko klasia ere zehazten zan: "*hayan de ser preferidos los que quieran jugar partido a tirada y virlada a los jugadores de solo tirada*". 2.-Errenteruak bolak eta txirluak zaindu egingo zitxuan eta bere kontura euki. 3.- Arratsaldero eman bihar zoan zerbitzua, bolarixak egon ezkero: "*que haya de asistir, y servir con puntualidad todas las tardes, que permita el tiempo, y haya quienes quieran jugar*". 4.-Bolatoki inguruko arbola gaztiak zaindu biharko zitxuan, "*que haya de espinar a su costa y cuidar, para que no se pierdan todos los plantios jobenes que hay en la inmediacion del citado Juego de volos*". 5.-Bolatokixa bihar bezela zainduta eta konponduta euki biharko zoan.

1825eko maiatzian Juan Manuel de Uzin bikaixuak Udalari eskatu zion kentzeko San Migeleko bolatokixa eta inguruko mahaixak, "*se quiten el Juego de volos y las mesas del Prado de Sn Miguel, suponiendo aquel parage por atrio de la Parroquial*". Kontuan hartu bihar degu 1824ko urritxik San Migeleko ermitxia parrokitzat erabiltzen zala. Zorionez ez zeuen bolatokirik kendu.

1845. urteko konponketa-lanek beste datu bat ematen digue: bolatoki harek ikuslientzako jarrilekuak zakazen. Hortako,



hiru harri-losa jarri ziran.

1855-1859 urte bitxartian Manuel Martinezek euki zoan bolatokixa erretan. 1859ko maiatzian, berriz, Jose Ygnacio Lascuraini eman zixuen urte eta erdirako, 140 errialen trukian.

Ez dakigu noiz kendu zeuen bolatoki haura.

Sabanikako bolatokixa

1803. urtian Mutrikuko eleizia eraikitzen hasi ziran. Horrezaz gaiñera, urte hartan, Sabanika auzokuak (bai, orduan kalia izatiaz gaiñera, auzuari ere halaixe esaten zakon) pozik laga zitxuan obria egin zoan Udalak: bolatoki berrixa, "*121 reales que tubo de coste el nuebo Juego de Bolos que se hizo en Sabanica*". Hori da bolatoki horren aipamen bakarra. Nun ete zauan? Mutrikuko frontoia 33 urte lehenago egin zeuen inguru hartan, eta segurutik bolatokixa aldamenian egingo zeuen. Eta, jakiña, bada azpimarratzeko moduko beste datu bat: 1945. urte ingurura arte frontoiaren kontrakantxan bolatoki bat egon zan. 1803tik ordura arte toki hartan egongo zan, edo bi bolatoki ezberdin izango ziran?

Magdalena edo Madalako bolatokixa

1824. urtian Bartolome de Arrietak eskaera xelebria egin zion Mutrikuko udalari, "*pide se le prive a Dn Joaquin de Uzelay el Juego de volos que ha hecho en la Magdalena*". Partikular batek egindako bolatokixa zan haura, baiña ez edozeiñek; herriko medikua izan zan Uzelay. Orduan, zer dala-eta boletan egitxeko toki haura kentzeko interesa? Nire ustez diruagaitxik izan zan, izan ere Bartolomek San Migeleko bolatokixa errentan hartuta euki zoan urte batzuetan. Hori da aipamen bakarra. Kendu ete zeuen? Eleiz atzeko bolatokixa eta Madalakua bat izango ziran?

Eleiz atzeko bolatokixa

1825. urtekua da lehen aipamena, Madalakua baiño urtebete geruagokua. Kasualidade haundixegia, ezta? Urte hartan Jose de Lerchundi agertzen zaku, berriz ere, bolatokixa errentan hartuta, "*rematante del juego de bolos de la Yglesia nueba*."

Ez dakigu noiz arte egon zan martxan. Baiña, 1882ko otsaillian, Udalbatzan eleiz atzian bolatoki berrixa egitxia komeni zala aitxatu zeuen, "*la conveniencia de que se establezca un juego de bolos detras de la Yglesia parroquial*". Araudixa edo erreglamentua adostu biharra ere ikusi zeuen.

1883. urterako eginda zauan bolatoki berrixa. Garagarrillaren 15ian egin zan lehelengo errematian Fermin Galarragari eman zixuen urtebeterako, 220 errialen truke. Orduko baldintzak ezagutzen ditxugu: 1.-Eleizkizunak zozen bitxartian debekatuta zauan boletan egitxia, "*no se permitirá el juego mientras los oficios divinos, misa mayor a la mañana y visperas a la tarde*". Kontuan hartu bihar degu arau hori aspaldikua zala Mutrikun; Udalak hori araututa zakan 1804. urterako ("*mando no se juegue a bolos mientras se dicen los divinos oficios pena de 4 reales de cada uno*"). 2.- Bolatokixaren arduradunak jaso biharreko irabazixak ere zehaztuta zozen: "*El rematante, segun costumbre, percibirá la cuarta parte de lo que los tiradores de los bolos comunmente acostumbran jugar por diversión*"; desapixuak edo erronkak onartzia edo ez Alkatiaren erabakixa zan, "*con respecto a juego de desafio deberá contar con la vénia y permiso del Sr Alcalde si han de jugar*". 3.-Erematatzailliak egoera onian bueltauko zitxuan bolak eta txirluak, "*la entrega en buen estado y uso de las dos bolas mayor y menor con sus correspondientes birlos a la villa*". Aurrerago ikusiko degun bezela, Galbaixoko bolatokixan ere bi bola egon ziran, bata bestia baiño haundixagua.

1884an José Maria Galdosi eman zakon erematian, 50 pezetaren truke; 1885ian Fermin Astigarragari (60 pezeta); 1886an Antonio Lazcanori (82 pezeta); 1914an eta 1915ian Juan Jose Yruretari (26 pezeta). 1917an Pedro Aramberriari (32 pezeta).

1933an Nicolas Albisuk hartu zoan, 55 pezetaren truke. Juan Elordi "Idrole" idazliak Argia astekarixan (1934-07-01) eman zoan 1934ko erematiaren berri: "*ERREMATA. Juan dan igandean Udal-Etxean izan zan erremate bat: bola lekukua. Eta 80 laurlekon artu zun Oiñederra'tar Jon Austin'ek*".

1946xan urte eta erdirako eman zan erematian. Pedro Alberdik 150 pezeta pagatu zitxuan, "*arriendo del carrejo o juego de bolos existentes en los terrenos de la Plaza de Padre Eulogio Ulacia*". Orduan ere ezin zeiken jokatu eleizkizunak dozen bitxartian: "*Tendrá terminantemente prohibido actuar o funcionar el juego durante las horas de 10 a 11 y media y de 3 a 4 y media de la tarde de los domingos, y dias festivos de guardar*".

Bolatokixaren azken urtiak ziran horrek, izan ere 1949an kendu zeuen, Ederrena zinia egitxen hasi ziranian. Bolatokiko harri latzak 1951. urtian inauguratu zan zinia egitxeko erabilli zitxuen. Gogoratzen dezue zinera sartzeko arkua? Ba harek ziran bolatokitxik hartutako harrixak.

Josu Larrañaga Arrieta



MUTRIKUKO TRIBIALA

Zer jakin behar ote du mutrikuar batek Mutrikuri buruz? Galdera horri bueltaka hasi ziren Mutriku BHIko ikasleak eta, Ondarruko "ondarrutar peto-petoa" mahai jokoa oinarri hartuta, beraien lanari ekitea erabaki zuten. Institutuan sortu zuten Mutrikuri buruzkoa mahai jokoa, 2021eko maiatza inguruan.

Ideia horri tiraka, ordea, garapen eta hedapen zabalgoa izan zezakeen zerbait egitea otu zitzaigun euskara zerbitzuko eta hezkuntza lan taldeko kideoi eta hauxe pentsatu genuen: Zergatik ez osatu institutuko ikasleek egin duten lana eta herri osoari begirako Mutrikuko tribiala sortzeari ekin?

Txurrukaren hatzaparretik hasita, herriko landarerik ugarienera arte bide luzea dago. Elkarte asko, historiatik istorio asko; rock taldeak, usadioak, arrantzale eta saregileak, baserriak eta danborrada, sokamuturra, kontzertuak eta euskara berezia, bizia. Emakumeak, kirola, herriaren egitura, ikastetxeak, jatorri anitzak, bitxikeria ugari.

Baina, nola batu jakin beharreko hori guztia modu erraz batean? Nola jaso adin guztietarako gustagarri eta erabilgarri izateko moduan?

Saiakera berri bat egingo dugu oraingoan. Historia liburuak, herri kantak eta kontuak, jolas eta joko bihurtzeko saiakera bat. Galdera bidez herri osora iristeko moduko saiakera. Mutrikurako herri jokoa osatzera goaz. Mutrikurako tribiala. Mutrikurako, Mutrikutik, eta mutrikuarrok sortua.

Tribial joko hau herriari buruzkoa izango da. Bertako natura, ohitura, historia, kultura, hizkuntza eta berezitasunak jaso nahi ditugu modu ludiko baten jakintza gorde eta transmititzeko.

Noski, zeu ere izan zaitezke lan horren parte. Zeu ere lan horren parte izatea nahi dugu, gainera. Zerbait kontatzeko badaukazu, ez izan zalantzarik eta hurbildu udaletxera edo idatzi mezua **euskara@mutriku.eus** helbidera.

Galderak osatuta bidaltzeko asmoz bazabiltza eredu honi jarraituz egin dezakezu. Adibidez:

Galdera: Noiz sortu zen Mutrikuko udalerria?
Erantzunak:
a) 1977an
b) 1209an
c) 1345ean
d) 1498an

Joko birtuala eta fisikoa osatzea da asmoa. Teknologia berriekin ondo moldatzen direnentzat mugikorrerako bertsioa egiteko asmoa dugu. Ohiko formatua nahiago dutenentzat, ordea, eskuz eta taldean jokatzeko mahai-joko ukigarria ere egingo dugu.

Herriaren ondare kultural, sozial eta naturala jasotzeko urratsa da aipatutakoa. Eta holakoetan esaerak dioen moduan, gehiago ikusten dute lau begik bik baino. Osa dezagun denon artean herriaren ondarea izango den jolasa.



Pentsa dezagun

Euskaraldian bete-betean sartuta gauden honetan, ezer gutxi idatzi daiteke jada. Badirudi dena esanda dagoela, ezta? Badakigu zer den ahobizi izatea eta zer belarriprest izatea. Badakigu zeintzuk diren gure herriko adigune eta ariguneak, eta baita nork daraman txapa eta nork ematen duen txapa ere.

Mutrikun, badirudi euskararekin dena eginda dagoela. Alegia, ezer gutxi egin dezakegula herria eta gu geu euskaldunago izan gaitezen. Baina egia ote? Pentsa dezagun.

Pentsa dezagun zein hizkuntza erabiltzen dugun hirira edo eskualde burura joaten garenean. Zein den erabiltzen dugun lehen hitza, edo aurrean hizketa lagun izango den pertsonaren jatorriak gure hizkuntza hautua aldatzen duen ala ez.

Pentsa dezagun nola komunikatzen garen euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituztenekin, edo gure ustez, hain ondo hitz egiten ez dutenekin. Agian, sorpresa har dezakegu.

Pentsa dezagun, baita, zein hizkuntzatan ditugun gure mugikorrak, eta zeintzuk komunikabide diren etxean kontsumitzen ditugunak. Zein egunkari edo zein kate darabilgun informatzeko.

Aurkituko dugu seguru zer aldatu. Noski, badago eta zer egin!

Hasteko, egin dezagun euskaldunekin euskaraz. Kafea hartzera joaten zaren lankidearekin, edo parkean arratsaldero ondoan eserita duzun gurasoarekin. Etxekoekin ere saiatu; askotan konfiantzazko guneek zuloak izaten dituzte eta.

Ikasten ari denarekin, ordea, izan ahobizi eta lagundu euskarara ekartzen. Ez dezala amore eman zuzendu eta zuzendu ari zarelako. Hurbildu euskaraz berarengana, eskertuko dizu eta.

Ezagutzen ez gaituztenekin, lehen hitza euskaraz egin eta saiatu euskarara ekartzen. Ez badaki bera izango baita ez dakiela esango duena. Gogoratu, 2021eko Eustat estatistika institutuaren datuen arabera, euskaldunen edo ia euskaldunen kopurua EAEn %c60tik gorakoa dela. Beraz, 10etik 6k badakitela euskaraz.

Jantzi ditzagun euskararen betaurrekoak egunero, eta izan dezagun hizkuntzarekin jarrera aktiboa. Hizkuntza konfiantza baita, izateko eta ekiteko modua. Euskaraldia 15 egun izango diren arren, hortik aurrera ere urte osoan zehar ekiteko garaia izango da. Hitzez ekiteko garaia, alegia.

Beraz, pentsa dezagun eta ekin.









18. abendurock oraingoan bai!

Azkenean ere, aldaketak aldaketa, itzuli gara gure **Abendurock**en ohiko formatura; hau da, aforo-mugarik gabe, musukorik gabe, datorrenarekin eta une bakoitzarekin gozatzeko prest! Eta nola ez, bi urteren ondoren, MRK gaba!

Abendurockek ez du etenik izan; kulturaren ateei irekita eusteko apustu sendoa egin genuen, horretarako behar ziren neurriak kontuan hartuta.

Egia da, azken bi urteetan (egoerak hala behartuta) ezin izan dugula abenduko jaialdia ohiko formatuan egin; hala ere, MRK gaba kenduta gainerakoei eutsi egin diegu. MRK gabak jai girotik gehiago izan dezakeela eta, atsekabez, bertan behera uztea erabaki genuen iaz ere.

Aurten, garai batean bezala, ostiraletan izango dira kontzertu gehienak; gaztetxean, eta oraingoan, borondate truk (musutruk jarrita, musurik iritsi ez zenez...).



Abenduaren 16a salbuespena izango da eta ez da kontzerturik egongo, hurrengo egunean (zapatuan) izango baita MRK gaba.

Hilaren 2an izango dira lehen kontzertuak, eta aurten indartsu hasiko da urteroko hitzordua. Lehen asteburuan bi metal talde igoko zaizkigu agertokira: Hilbera (Markina-Xemendik) eta Anker (Legazpitik). Iaz eta aurten argitaratutako lanak aurkeztera datoz biak ala biak.

Hilaren 9an, Keike talde ondarrutarraren txanda izango da. Indartsu itzuli dira! ...eta ari dira, dira... MRK-ko entsegu-geletan ondu dute egiten dabiltzan bira; eta taldearen azken bira omen den honetan, azkenetako geldialdia Mutrikuko gaztetxean egitea erabaki dute. Eskertzekoa hori!

Abenduaren 17an, aurretik esan bezala, 2 urte luzez zain egon garen MRK gaba izango dugu. MRK-ko kideez gain, beste norbaitek gau honetan zerbait jo/abestu nahiko balu, **mrktarock@gmail.com** helbidera idaztea edo MRK-ko kideren batekin aurretiaz harremanetan jartzea baino ez du (aste batzuk lehenago, ahal bada).

23an, Etxekalte (Bermeotik) eta Habi (Amasa-Villabonatik) izango ditugu. Habiren formatua berezi samarra dela esan dezakegu. Bi lagunek (bateria eta gitarra) osatutako taldea izan arren ez zaio hutsunerik antzematen (pasarte goxo, lasai eta pisutsuak tartekatzen dituzte; betiere, ahots garbia erabilita). Gainera, egun berean oholtza berberera igoko diren bi taldeok zenbait abesti elkarrekin grabatu zituzten 2021ean; ikusiko dugu gau horrek zer dakarren, baina ziur berezia izango dela. Biak ere lan berriak aurkeztera datoz.

Urteko azken kontzertua, abenduaren 30ean izango da eta Pleura talde nafarra igoko zaigu oholtzara. Eurekin batera Iparraldeko talde bat ere izango dugu: Iluma talde lapurtarra. Ipar-Hego loturak sendotzeko, inguru hartako ordezkaritza ezinbesteko bihurtu da gure neguko musika gaualdietan. Eta hala jarrai beza!

Azken urteetako ildoari jarraituz, irizpide hauek hartu ditugu aintzat taldeak auke ratzerakoan: hizkuntza (talde guztiak kontuan hartuta, Abendurockeko kontzertuen %90-100 euskaraz izatea), lurraldetasuna, parekidetasuna, musika estilo aniztasuna, batez ere sortzaile berriak/gazteak izatea (eurei plaza eskaintzea helburu)...

Abendurockerako Gaztetxearekin batera sortu dugun erasoen aurkako protokoloa ere azpimarratzekoa da. Datozenei une atsegin bat eskaini nahi diegu eta ez dugu inolako erasorik onartuko!

Zine Forumekin elkarlanean, berriz, abenduaren 4an, 18:00etan, gaztetxean musikari buruzko film/dokumental bat eskainiko dugu. Jakinaraziko dizuegu zein izango den aurten eskainiko duguna. Bestalde, ezin ahaztu Gaztetxeak Abendurocken jokatzen duen paperarekin; herriko talde edota elkarteen arteko elkarlanak pisu nabarmena du Abendurock aurrera ateratzeko orduan ere, eta oraingoan ere Gaztetxea ezinbestekoa izan da horretan.

Esan bezala, dena emateko prest gatoz aurten ere. Eta oraingoan bai, oraingoan handia izango da!

Mutrikuko Rock Kolektiboa (MRK)

XVIII MRKren eskutik

ABENDU ROCK 2022

MUTRIKUKO GAZTETXIAN

sarrera BORONDATEA

HILBERA+ANKER
ABENDUAK 2 | 22:30

KEIKE
ABENDUAK 9 | 22:30

MRK GABA
ABENDUAK 17 | 22:30

HABI+ETXEKALTE
ABENDUAK 23 | 22:30

ILUMA+PLEURA
ABENDUAK 30 | 22:30

ITOIZFILMA
ABENDUAK 4 | 18:00



ZORIONAGURRAKZORION



AMETZ

Azaroaren 29an 9 urte betetzen dituzulako, zorionak eta muxu pila bat etxeko guztio partez!



AIORA

Zorionak! Egun politxa izan!
Guk txintxin zure omenez!
Txorixatarrak



AIORA

Zorionak ixeko!
Zure frito masatxuak...!!



AIORA

Zorionak! Ama, aita ta familia osuan partez. Ondo pasau Asturiasen!!!



ILLART

Zorionak! Bi urte haundi jada! Musu pilo bat zuretzat, maittia!



LUKEN eta ALEN

Zorionak Luken&Alen!
6 urte handi eta baaaattt!
Zein ederra... infinitorarte!
aitatxo&amatxo







XABI, HARITZ eta JON

Abenduaren 9an eta 18an etxeko mutilak urteak betetzen dituzuelako,
Zorionak eta muxu potolo-potoloa zuentzat familiakoen partez!



AURO

Zorionak lagun! Jarraitu lanerako zure griña hori guri kutsatzen!



JOAKIN

Zorionak! Heue re izan hintzen gazteagoa!

KALAPUTXI

Zorionak Kalaputxi 21 urte bete duzulako!
Zorionak modu batean edo bestean Kalaputxiren kide zareten guztioi!





Argazki Zaharrak



1954 urte inguruan

Tomas Alkorta Barruetabeña, Arana baserriaren aurrean

FARMAZIA GUARDIAK 2022

2022	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31
Azaroa	1	1	1	2	②	2	3	3	3	3	4	4	4	2	2	2	2	1	①	1	4	4	4	4	3	3	3	1	1	1	
Abendua	1	2	②	2	3	3	3	3	4	4	4	2	2	2	2	1	①	1	4	4	4	4	3	3	3	1	1	1	1	2	②

② ① Larunbat goizak (09:30 -13:00)

EGUNEKO FARMAZIA GUARDIA ZERBITZUA / 9:00 - 22:00

1	Hiart Burgoa	Deba	Astillero kalea 2	943 19 18 12
2	Amaia Zalduegi	Deba	Lersundi kalea 20	943 19 10 55
3	① Lon Apraiz	Mutriku	Erdikokale 5	943 60 32 50
4	② Lasuen-Elezgarai	Mutriku	Txurruka Tenienteak etorbidea 3	943 19 50 26

GAUEKO FARMAZIA GUARDIA ZERBITZUA / 22:00 - 9:00

Mendinueta Berastegui	Eibar	Urkizu pasealekua 6	943 82 01 06

azaroaren 18tik abenduaren 2ra
EUSKARALDIA

azaroak 24, osteguna, 18:00 Zabielen

Hitzaldia: Biolentzia sinbolikoa, izu soziala eta kontrola

azaroak 25, ostirala, 20:00 Zabielen

Antzerkia: Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi

azaroak 27, ostirala, 18:00 Zabielen

Bakarrizketa: Nekatutak (Antton Telleria)

azaroak 30, asteazkena, 18:30 Zabielen

Gurasoen haur eta nerabeen sexualitatean bidelagun

azaroak 30, asteazkena, 16:00 KZgunean

BAKQ ziurtagiria

abenduak 3, larunbata

EUSKARAREN EGUNA

abenduak 16, ostirala, eta 18, igandea

Herri galdeketa: Dikea amaitu bai ala ez?

abenduak 17, larunbata

Santo Tomas azoka

kalaputxi2001@gmail.com

whatsappa 635748393

abenduko aldizkarian

argitaratzeko

abenduaren 9rako

bidali zuen mezuak

ODOLA EMATEA
abenduak 9

17:00etatik 20:30ak arte
anbulatorioan

Gipuzkoako Odol Emaileak

MENDI IRTEERAK
abenduak 4

Markinako Bigarren Guda Lerroa

Burumendi Mendi Elkartea

zuen elkartearen ekitaldien berri emateko idatzi helbide honetara:

aldizkaria@kalaputxi.eus

eta hemen argitaratuko ditugu iragartzeko dituzuenak

Igualatorioarekin eta
Osakidetzarekin
lan egiten dugu

Audioprotesista
egunero zentroan
Audiometriak doan

OPTIKA VITORIA

OPTIKA • AUDIFONOAK

ERRIBERA 16 • 48700 ORDIZIA • 943134138 • mvitoria@cnoo.es

Torrealday

AHOLKULARITZA
LIDERRA,
TOKIKO
ARIMAREKIN

ASESORÍA LIDER
CON ALMA LOCAL

Torrealday adituak, Gipuzkoan ere bai

Torrealdayk 35 urte baino gehiagoko esperientzia du, eta hainbat herritan banatuta dagoen bulego-sare zabala. Enpresa handiei, enpresa txiki eta ertainei, eta autonomoei zerga-, lan- eta kontabilitate-aholkularitzako zerbitzu integrala eskaintzen diegu, kualifikazio handiko eta etengabeko prestakuntzan dagoen profesional-talde baten eskutik. **Ondarroa, Ermua eta Irungo** gure bulegoetatik kalitate handiko zerbitzua eskaintzen dugu, hurbiltasuna eta konfiantza osoa eskainiz. Gainera, bezeroei beren jarduerari eragiten dieten berrikuntza guztien berri ematen diegu, baita gure azpiegiturari eta gaitasunari esker jaso ditzaketen laguntzen eta diru-laguntzei buruzko informazioa ere. Jar zaitez gurekin harremanetan, eta inolako konpromisorik gabe informatuko zaitugu.

TicketBAI

Torrealday
aditua

www.torrealday.es

Samiela

Matrikula epea zabalik

azaroaren 21etik abenduaren 2ra

Haur eskola (0-2 urte)

ESKOLA TXIKI HANDIA





- Bizipenen bidez ikasten
- Esperimentazioa
- Psikomotrizitatea
- Familiekin harreman zuzena
- Bazkaria barne
- Ordutegi eta ordainketa malguak
- Familia bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzua

Egiteko beste modu bat!



Urte osoan zehar matrikulatzeko aukera.

Etor zaitez!

www.samiela.eus zuzendaritza@samiela.eus 943 60 31 95